

ERAKUSKETA

"Artea eta mitoa. Pradoko jainkoak"
2018ko uztailaren 7tik urriaren 28ra

KOMISARIOAREN HITZALDIA

Uztailaren 8a, igandea, 12:00

Fernando Pérez Suescun, erakusketako komisario eta Museo Nacional del Prado Hezkuntza Arloko Eduki Didaktikoen burua.

Ekitaldi aretoa
Gaztelaniaz
Sarrera doan, aretoa bete arte

SAN TELMO GAUA

Abuztuaren 25a, larunbata, 20:30 - 00:00

Aldi baterako erakusketaren, klaustroaren eta elizaren irekitze berezia, doako sarrerarekin eta taberna-zerbitzuarekin. Mikel Chamizok erakusketa eta musika errepertorio klasikoa uztartuko ditu DJ saio batean.

BISITA GIDATUAK ERAKUSKETARA

Astearte eta larunbatetan egingo dira bisita gidatuak, 11:00etan euskaraz eta 18:00etan gaztelaniaz. Abuztuaren, Musika Hamabostaldia prestatutako musika aukeraketa baten zatiak ere entzun ahal izango dira bisita haueetan. Ez da beharrezkoa izena ematea parte hartzeko eta doakoak dira, museorako sarrerarekin.

Gainera, taldekako bisitak adostu daitezke:
stm_erreserbak@donostia.eus, 943-481561

Artea eta mitoa Pradoko jainkoak

2018ko uztailaren 7tik urriaren 28ra

San Telmo Museoa

Zuloaga Plaza, 1
20003 Donostia
Tel.: 943 48 15 80
www.santelmomuseoa.eus
santelmo@donostia.eus
@santelmomuseoa

Ordutegia

Asteartetik igandera: 10:00 - 20:00
Astelehenetan itxita, jaiegunetan zabalik

Tarifak

Sarrera orokorra 6€
Murriztua 3€
ASTEARTEETAN, SARRERA DOAN

Musika Hamabostaldiko Mitoa eta tradizioa izenburupean bildutako kontzertu bateko sarrera ekarrita, erakusketara dohainik sartzeko aukera izango da abuztuaren zehar.

Erakusketa Museo Nacional del Prado eta "la Caixa" Gizarte Ekintzak antolatuta, San Telmo Museorekin lankidetzarekin

MUSEO NACIONAL
DEL PRADO 200 AÑOS



museodelprado.es



Obra Social "la Caixa"
obrasocialla Caixa.org

STM

San Telmo Museoa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura

Museoaren erakunde babesleak

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HEZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Gipuzkoako
Foru Alderdiak

Kultura, Turismo, Gaztelania
eta Katalan Departamentua



ORAIN
KULTURA

Theodoor van Thulden. Apolo Dafneren alzetik (xehetasuna), 1636-38. © Museo Nacional del Prado.

arte
eta

mitoa

PRADOKO
JAINKOAK

STM

San Telmo Museoa

Artea eta mitoa Pradoko jainkoak

Jainko eta erdijainkoen istorioak eta gizakiekin duten harremana biltzen dituzten kontakizunak dira mitoak.

Horregatik agertzen dira antzinako kultura eta gizarte guztietan. Ez zuten jatorri argirik kasu gehienetan, tradizionalki ahoz transmititzen ziren, eta apurka-apurka aldatzen ziren eduki berriekin eta bertsio desberdinekin. Grekoen kasuan, idatzizko lehenengo testigantzak K. a. VIII. mendera iristen dira gehienez ere.

Olinpoko jainkoak ziren batez ere mito horien protagonistak, eta gizakien patua zuzentzeaz gain, Lurrera jaitsi eta gizakiekin elkarrengaitan zuten, zenbaitetan gizakien itxura hartuta, hurbilgoko eginez. Naturako edo beren inguruko unibertso mota guztietako fenomenoak azaltzeko ere baliagarriak ziren jainko horien istorioak. Dibinitate ugari sortu ziren horrela, mendiak, iturriak, ibaiak, itsasoak, haizeak, konstelazioak eta abar pertsonifikatzen zituztenak, baina baita gizakiekin batera bizi ziren mota guztietako zuhaitzak eta animalia-espeziaz ere.

Historian zehar, etengabeko inspirazio-iturria izan da mitologia klasikoa artista ugariarentzat, eta kontakizun zoragarri horiek zeramika-piezetan, marmolezko blokeetan, dominetan, tauletan eta mihisetan bilduta geratu ziren, erakusketa honetan ikus daitekeen bezalaxe. Pradoko Museoko obrek —K. a. I. mendearen erdialdetik XVIII. mendearen amaie-



Erasmus Quellinus
Europaren bahiketa (xehetasuna), 1636-38.
© Museo Nacional del Prado.

ra-aldera bitartekoak guztiak ere— osatzen dute eskusiboki erakusketa, eta mitologia greko-erromatarrari buruzko eta mitologia hori garrantzi handiko artistek irudikatzen erabiliko moduari buruzko ikuspegi zabala eskaintzen du, eta hor ditugu Francisco de Zurbarán, José de Ribera, Pedro Pablo Rubens, Michel-Ange Houasse, Francesco Albani, Corrado Giaquinto edo Leone Leoni, besteak beste. Izaera tematikoa duten zortzi ataletan egituratzen da erakusketa. Lehenengoan, *Historia bat kontatzen*, mito klasikoak kontatzen dituzten literatura-iturri nagusien garrantzia aitortzen da, Hesiodori eta Homerori lotutako testu zaharrenekin hasi eta autore erromatarrek eskainitako bertsiorekin buka, hala nola Ovidiok eskainitakoa, hari zor baitiogu *Metamorfosiak* lan ospetsua, antzinako munduko testu ezagun eta zabalduenetakoa, zalantzarik gabe.

Olinpoko jainkoak eta Espiritu libreak atalean jainko greko-erromatar nagusiak agertzen dira, haien istorioak erakusketako beste esparru batzuetan garatuko direlarik, eta beren abenturetan lagun izango dituzten bigarren mailako beste zenbait pertsonaia-rekin batera: ninfa, musak, satiroak, menadeak... Puntu honetan azpimarratzekoa da ikus-entzu-



Erromatar lantegia. *Prometeo eta Atenea lehen gizakia sortzen* (xehetasuna), Ca. 185. © Museo Nacional del Prado.

nezko bat proiektatuko dela erakusketa honetarako propio, zeinean jainkoak bizidun egingo diren ikusleari protagonista diren pasarte batzuk erakusteko eta, aldi berean, erakusketaren ibilbidea osatzen duten obretan behar bezala identifikatuak izan daitezeko gakoak eskaintzeko.

Laugarren atalak, *Maitasuna, desira eta pasioa*, gogoeta bat proposatzen du sentimendu hori harremanen sortzaile eta gertaeren eragile gisa, eta hurrengoan, *Hutsegiteak eta zigorrak*, jainkoen asmoei aurka egitearen zoritxarreko ondorioak erakusten dira. Zigor horietako batzuk eraldaketa fisiko bat eskatzen dute, jainkoek bere sarritan erabiltzen duten baliabidea —Zeus delarik protagonista nagu-

sia— helburu jakin batzuk lortzeko, batez ere amodio-konkistak, gai hori *Jainkoen eta gizakien itxuraldatzeak* eskainitako esparruan garatzen delarik. Zazpigarren esparruan *Herioak* dira ardatz, gaitasun bereziak dituzten gizaki hilkorak, jainko baten seme edo alaba izatearen ondoriozko gaitasunak, hain zuzen ere, eta erakusketaren azken atala, *Troiako gerra*, borrokaldi ospetsu horri dago eskainia, zeinean jainkoak eta gizakiak elkarrekin borrokatu baitziren. Su suntsitzaileak hiria errausten du, eta garbitze-lana ere egiten du —Eneasen ihesaldiari lotuta, haren ondorengoek hiri berri bat sortuko baitute handik gutxira, Erroma—, erakusketari amaiera emanez.



Lantegi neotikoa
Estasi dionisiakoa (xehetasuna), 50-40 K. a.
© Museo Nacional del Prado.




Francisco de Zurbarán
Herkules eta Zerbero (xehetasuna), 1634.
© Museo Nacional del Prado.



Francisco Collantes. *Troiako sutea* (xehetasuna), XVIII. mendea. © Museo Nacional del Prado.

Olinpoko jainkoen zuhaitz genealogikoa



Jan Cossiers
Nartziso (xehetasuna), 1636-38. © Museo Nacional del Prado.